

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5875

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 11koa, Kulturako sailburuordearena, 2025 urtean Kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzak (Sorgune) emateko Balorazio Batzordearen batzordekideak izendatzen dituen eta haren osaera argitaratzen duena.

Ikusirik 2025. urtean Kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzak emateko deialdia egiten duen Jaurlaritzako lehenengo lehen-dakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko azaroaren 19ko Agindua.

Kontuan izanda Agindu horren 13. artikulua aipaturiko dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordeak esleipen-irizpideetan oinarrituta txostena egingo duela eta 5. atalak Batzorde horretako kideak izendatzea eta haren osaera argitaratzea Kulturako sailburuordearen Ebazpen bidez emango direla jasotzen duela,

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Ana Lopez Asensio andrea (Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako zuzendaria). Hark ezin badu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

Batzordekideak: Nagore Garcia Velázquez andrea; Ainara Martin Blanco andrea; Iker Tolosa Lafuente jauna eta Katrin Schlegel Sasiainbarrena andrea.

Idazkaria: M. Lourdes Aranguren Sudupe andrea (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria). Hark ezin badu, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatu da.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak izan dezan horren berri.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 11a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.